


BARREN
ELGOIBARKO ASTEKARIA
633. zkia.
XV. urtea
2007ko azaroaren 9a

Amaia, Alfonso eta Izaskun, AEK-ko irakasleak

# 25 urte Elgoibar euskalduntzen

[ GAZTAROA ] KUADRILLATEGI EGITASMOA • [ KULTURA ] BALTASAR ELKARTEAK 50 URTE

estetika



Olaia

Laser depilazioa

Telf. 943 74 27 25
San Inazio, 4 behea - 20870 ELGOIBAR
www.ammergroup.es

DIODO lightsheer laser depilazioa

Azaroak 21- 27 eta abenduak 19 PROMOZIO EGUNAK.

- Gorputz atal baten depilazioan % 20ko deskontua.
- Bi gorputz atal depilatu ezkero % 30eko deskontua.
- Seigarren sesiotik aurrera, bezero guztiak % 50eko deskontua dute.

ETXEBIZITZAK ERAIKITZEN
SANTA KLARA 13 zkia.(Elgoibar)



- Duplex-a terrazarekin
- 2 eta 3 logelako etxebizitzak
- Garaje eta trastelekuak

INFORMAZIOA eta SALMENTA: Pedro Muguruza Etorbidea, 9 - Behea (Elgoibar). Tlf.: 615 758 480

# ZOZOAK BELEARI...



**AMAIA GORROTXATEGI**

Telebista piztea nahikoa da mundua ze gaizki dagoen ikusteko, baina, ez dakit zergaitik, eguraldia edo, azken aldian oso baikor nabil. Gauza on asko ikusten ari naiz mundu desitxuratu honetan.

Nire Bilboko etxe azpian "Latindenda" izeneko establezimendua dago, eta ireki zutenean izenak grazia egin bazidan ere, gaur ulertu dut dena."Latindenda" pertsonifikatua izan dut. Etxera bidean, bost urte inguruko neskatila ikusi dut eta bere azal eta begi koloreagatik "latin-en" alaba da, eta "denda" kanpoan eserita dago ozen-ozen " Paristik natorren artista bat naiz ni." abesten. Latino euskaldunak, zergaitik ez? Esaldi nardagarri haren euskal bertsioa etorri zait burura, horrela bai, "Euskal Herria ondo doa".

Nire frantses irakasleak D eredukook gazteleraz ondo idazten ez dakigula uste duen arren, gaur goizean Euskadi Europako kultur-maila altuena duten lehen bost nazioen artean dagoela esan didate; eta bai, Sallobente Elkarteko lehendakaria aurten, lehenengoz baina ez azkenekoz emakumea eta gaztea da.

Aspektu askotan blokeatuta gaude, STOPean geldituta, baina beste gauza batzuetan bagoaz aurrera, hanka bakar baten gainean bada ere. Ez dakit horrela ikusten duzun Ainhoa, beharbada ni naiz azken aldian arraro xamar dabilena... ez dakit, eguraldia edo.

> **«Gauza on asko ikusten ari naiz mundu desitxuratu honetan»**
>
> AMAIA

> **«Egin dezagun amets, baina esna, eta ez dezagun lo hartu»**
>
> AINHOA



**AINHOA MENDIBIL**

Ondo doala mundua eh... beno, eta zergatik ez. Hasi naiteke esaten, munduan jendea goseak hiltzen dela; gogoratu naiteke Chad-eko umeez. Edo begiratu nezake gertuago, baina ez horren gertu, eta kartzeletako lagunen ametsetan sartu. Bilboko Zazpi Kaleetan hotza pasatzen duen eskalearekin pentsatzen jarri naiteke, gaur bere gizonak jipoitu duen emakumearengan, bere hizkuntzan berba egin izan ezin duenarengan, bere herria, ingurua laga, eta ihes egin behar izan duenarengan, bere semea lan istripuan hil zaion amarengan, edo herriko etxe batean sartu ezin den herriko gaztearengan, edo sekula jolastu ez duen hamar urteko umearengan. Eta hasten naiz guzti horietan pentsatzen, begiak ixten ditut, eta malko bat irteten zait nahi gabe. Baina malko hori sikatu, begiak zabaldu, eta kalera irteten naiz, pentsatzen, badagoela zer aldatu, zer hobetu, mundu puta honetan.

Eta horrexegatik ados nago zurekin Amaia, mundua ondo doala diozunean. Txiki txikitik hasita, aldatuko dugu hau. Badakigu dena ez doala ondo, eta horrela soilik, joango da hobeto. Badakigu zer ez zaigun gustatzen, badakigu zer nahi dugun ere. Ba egin dezagun amets, baina esna, eta ez dezagun lo hartu. Edo bestela, orduan bai, ez da ondo joango mundua. Dena ondo ez dagoela ikusten dugulako, lortuko dugu zerbait ondo egotea. Eta bitartean, ametsak betetzen joatea baino ez zaigu geratzen.

> IRRIBARRE BATZUK EZ DIRA ZORIONTASUNEZKOAK; ONTASUNEZ NEGAR EGITEKO ERA BAT DIRA
>
> Gabriela Mistral

*Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.*

## AHT merkantzien garraiorako!!

AHT modu guztietara saldu nahi digute baina... balio al du? AHTk merkantziaren garraiorako? AHT definizioz 220km/h-tik gora ibiltzeko gai den trenari deitzen zaio.

Merkantzien garraioa gehienez 140km/h-tan egin liteke gaur gaurkoz eta burdinbideak bidaiarien garraiorako baino exijentzia gehiago eskatzen ditu: malda txikiagoak...

Gauzak dauden bezala Euskal Y-ak ez du merkantzian azkartasunik ezta fidagarritasunik eskaintzen; inguruko probintziek eta herrialdeek ez baitute Abiadura Handiko Trenetan merkantziak garraiatzeko apusturik egin, eta euskal hirietako merkantzia garraioa distantzia motzekoa izaki, eta jakinda geltokiak hirietatik kanpo eraikiko direla, azkartzen lagundu ordez moteltzen lagunduko luke, trafiko arazoak areagotuz.

Merkantzien garraioan denboraz gain, garraioen kostua (merkantzia askok ezin dute AHTn garraiatuak izatearen gainkostua jasan), pisua, merkantzien material mota (zeren material arriskutsuak ezin dira AHT bidez garraiatu) eta beste hainbat faktorek merkantzia asko AHTtik at lagako lituzkete, gure errepideetatik barna pasatzera kondenatuz.

Egunean 1.000 kamioi kenduko ei lituzke gure errepideetatik. AHT 2013-2015ean martxan jartzea aurreikusten da eta 2015erako egunean 20.000 kamiotik gora pasako direla espero da Irungo mugatik; beraz merkantzien %5a kenduko luke soilik, gehienera jota ere.

Espanian, AVE Madril-Sevilla merkantzien garraiorako ere eraiki zen, baina egun ez da merkantziarik garraiatzen honek dakartzan kalte larriak medio (burdinbidean mugimenduak etab). Harrezkero Estatu espainiarrean ez da AHT mistorik egin (adibide bezala egunotan Katalunian hainbeste zeresan ematen ari den Madril-Bartzelona AHTren bidea soilik bidaiarien garraiorako da!). Eta honi, Frantziako TGV ere soilik bidaiarien garraiorako diseinatua dela eransten badiogu, noraino nahi dituzte merkantziok AHTz garraiatzea?

Ez al da izango beraien finantzaketa iturri handiena delako egin nahi dutela, eta ondoren hasi direla egiteko aitzakiak bilatzen?

**AHT EZ ELGOIBAR**

## Hartu eta eman

Ines, Patxi, Leire, Antonio, Leen, Julian, Mª de los Angeles, Carlos... eta 25 urte hauetan zeuen burua euskaraz janzteko, AEK euskaltegia aukeratu duzuen guztiok zoriondu nahi zaituztegu.

Alde batetik, hartu duzuen erabakiari eta egin duzuen ahaleginari esker, euskara gure gizartean hizkuntza garrantzitsua izan dadin, lagundu duzuelako.

Bestetik, zeuen burua aberasteaz gain, AEK euskaltegia "etxe-tzat" hartu duzuelako, jakin badakigulako, guk, euskaltegi honetako irakasleok, zuei ahal izan dugun guztia "eman" dizuegula, "eman-dako" hori dirutan kontatu ezin bada ere, baina, aldi berean, guk ere sarri "hartu" dugulako zuengandik.

Zuengandik "hartu-tako" hori dena ere ezin izan dugu kontatu, baina gure bihotzetan ondo asko gordeta dago, eta ez dugu inoiz ere ahaztuko nola laga zeniguten zuen argazkia gure propagandarako, nola saldu zenizkiguten errifak, nola eman zeniguten zuen sinadura gure eskaerek pisu handiagoa izan zezaten, nola gonbidatu gintuzuen zuen elkartera elkarrekin afaltzera, nola erabili ahal izan genuen zuen autoa KORRIKAn, nola egosi izan dituzuen txorizoak taloekin saltzeko, nola..., azken batean, nola eman diguzuen ahal izan duzuen horretatik. Eta, batez ere, nola poztu garen euskaraz berbetan entzun zaituztegunean, euskaltegitik kanpo.

Hogeita bost urte pasatu diren arren, aurrerantzean ere elkarri "hartzen-ematen" jarraitu nahi dugu. Horretarako, euskarak bere bidea egin dezan, eta zeuen burua aberastu nahi baduzue, AEK euskaltegiak zabalik ditu bere ateak, Plaza Txikian.

Zorionak, euskarak lotu gaituen guztioi!

**AEK EUSKALTEGIKO IRAKASLEOK**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia**.

[b]

barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea: ELGOIBARKO IZARRA

KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Oier Narbaiza PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zaloa Amaiz KOLABORATZAILEAK Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Garmendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Iñigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives INPRIMATEGIA Gertu TIRADA 4.650 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

## KEXAK

• San Antolin auzoan ez dago zaborra birziklatzeko kontenedorerik: "Ingurugiroa eta natura zaintzea gustatzen zait eta gure auzoan ezin dut zaborrik birziklatu, izan ere, zaborra eta beira botatzeko kontenedoreak bakarrik dauzkagu-eta. Bestalde, autopista inguruan autoak aparkatzea debekatu dutenetik, gure auzoan ez daukagu aparkatzeko lekurik. Ez dut esan nahi lehengo egoera hobea zenik, baina orain San Antolineko auzokideak gara autoa edozein modutan aparkatu behar dugunak."





• San Rokeko futbol kantxan autoak egoten dira aparkatuta: "San Roke auzoan, herriko beste leku askotan bezalaxe, aparkaleku arazo handia daukagu, baina horrek ez du esan nahi edozein lekutan aparkatu daitekeenik. Futbol kantxa bakarra daukagu auzoan eta, nire ustez, jendeak ez luke bertan aparkatu behar. Udalari eskatu nahi diot gune honetan aparkatzea debekatzea, asteburuetan behintzat futbol kantxa libre egotea gustatuko litzaiguke. Mila esker".

## TXALOAK

• Eskerrik beroenak Elgoibarko gaztetxeetako bazkaria antolatu zutenei: "Oso ondo egon zen orain arteko gaztetxeetan ibili den jendea elkartzeko eta gazte asanbladetatik gizarte hobe baten alde zenbat lan egin den ikusteko. Besteak beste, NATOren aurkako ekintzak, desobedientzia zibilaz edo intsumisioaz gizarte antimilitarista baterako ideiak, FMI-Banku Mundialaren aurkako ekintzak, okupazioa, kontzertuak, antzerkiak, hitzaldi-eztabaidak, bideo emanaldiak, zine txiroa, Korrika eta euskara, hiesa dutenekin elkartasuna, naturaren konserbazioa eta ahaztu zaizkidan beste hainbat gauza. Aupa Elgoibarko Gaztetxeak!".

• Eskerrak Udalari San Pedro eta San Antolin arteko bidea asfaltatzeagatik: "Oso txukun gelditu da bidea eta eskertzekoa da Udalak eginiko lana".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 **ELGOIBAR**
☎ 943 74 41 12

Elgoibarko Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DANOBAT
kutxa
GOITI
GRUPO DANOBAT



# URRUZUNOREN *luma*

## *Gerrako kontu eta enbirixak*

Elgoibarren apenas irratirik ez zaguen garaixan, Goikorrotako okindegixan, Joxepa Mendikute alargunak eta bere lau seme-alaba gaztiek, bazeunken bat. Elgoibartar errepublikarrak hantxe biltzen ziran haura entzutera.

Elgoibartik soldaduak joan eta gero, Zapatu Santu batian, birramama Joxepa eta irratixa entzuten ibiltzen ziran hamar gizon (Teodoro Arriola, Juanito Rementeria, Canales, Valerio pelotarixa, Erreketa...) Donostiara deklaratzera eraman eta kartzelan sartu zittuen. Hurrengo martitzenian, gobernadoria oporretatik bueltatzian, Gipuzkoako okinen lehendakarixak, hamaika atxilotuak askatzia lortu zaban. Joxepa Mendikute ile beltza zakala sartu eta erdixa txurixa zakala urten zan handikan.

Militarrak, atxilotuak askatu eta salaketia apurtu zabanian: jarraittu nahi dozuen radixua entzuten, baina ez laga inori radixua entzutera sartzen, zuen herrixan enbirixa asko dagoelako eta hurrenguan be salatuko zaittuelako.

Atxilotuek Donostian afarixa egin eta eguenian ordubatetako trenian Elgoibarrera iritsi ziranian, elgoibartarrek zapi zurixak eskuetan zittuela egin zieten ongi etorrixa.

Goikorrotako irratixa ez zan isildu, geure amak gaztetan La Pirenaica eta Radio Paris entzuten zabela goguan dauka eta.

*Maialen Olazabal*

## [ ZORTZIKO TXIKIAN ]



### LETICIA ISART
PAGOA LORADENDAKOA

• **Zer eskaintzen duzu?**
Balkoi eta jardin handietan proiektuak egiten ditut. Gero landare salmenta ere badut. Udan terrazak ere ureztatzen ditut.

• **Bulego eta enpresetara ere landareak eramaten dituzu eta diseinuaz arduratzen zara.**
Enpresetan normalean ez da egoten inor ardura hori duena. Jardin eta enpresetan mantenua kontratatu ohi da.

• **Zeintzuk dira landareen onurak?**
Airearen kalitatea hobetzen dute. Atmosfera garbitzen dute. Animoa hobetzen dute eta estresa murriztu.

• **Nola joan da Domu Santukoa?**
Ondo. Bi egunetan egin behar dut dena, lo egin gabe.

• **Zer lore saltzen da gehien?**
Erramutan, bariatua batez ere. Barrurako, orkideak. Kanporako, denboraldikoa: neguan ziklamenak eta udan geranioak.

• **Nolakoak dira lore erosle tipikoak?**
Denetatik, andrazkoak normalean gehiago hemen.

• **Loreak oparitzeko zer hartu behar da kontuan?**
Pertsonaren gustuak. Etxea ezagututa, moldatzea errazagoa da. Orkideak asko oparitzen dira txikiak direlako.

• **Landareak zaintzeko sekreturik badago?**
Barrukoei ur gutxiago bota behar zaie.

Bete al duzu **Albisteak e-postaz jasotzeko** harpidetza?



*egunero bi notizia jasoko dituzu!*

ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

**www.elgoiBARREN.net**

## [AKORDATZEN NAIZ]



### NIKO OSORO

1934an jaioa

### «Telebisiua eta telefonua»

Gure etxian ez zaguan ezer ere, ez telebisiorik, ez telefonorik. Guk hori ezagutu gendunian, gabian lotara ere juterik ez gendun nahi izaten, berandura arte egoten giñan, eta zuri-beltzian zan!

Telefonua ere sekulako bentajia izan zan, komodidade haundixa. Basarrixak horrekin mordua salbau dira. Lehen errekau bat emateko puntatik puntara ibili bihar izaten zan. Kamiñuak ere asko mejorau dira, adelanto haundixa egon da. Eskuko telefonorik ez daukat oindiokan, baiña gauza ona begittantzen jata. Ni, gaiñera, karreteran asko ibiltzen naiz, txofer egitten dot oindiokan.

Ezkondu nitzanian atera naban karneta Arraten, lehenenguan aprobau naban, eta beste danak kale. Kotxiakin suertia demasa euki dot, sekula ez dot azidenterik euki. Gaiñera, baloretsua izan naiz, belozidadia gustatzen jata. Oin gitxiago ibiltzen naiz, baiña sasoi baten, gizona baiño gehixago ibiltzen nitzan kotxian. Asko gustau jata txofer ibiltzia. Sei kotxe euki dittut; bat harrapau egin zien. Oin kotxe txiki bat dakat, eta kentzekotan nago, baiña penia ematen ditt.



## [GURE BERBAK]

### *Morfologia (8): NONGO*

Leku-genitibua ere esaten jako kasu honi.

Bi egittura bereizi bihar dittugu atal honetan:

*NUNGO BERRI IZAN*
*ZEREN BERRI IZAN*

*-KO BERRI:* lekua eta denporia adierazten deben izenekin erabiltzen da.

Hobeto ulertuko dogu adibidiekin:

Lekua: *nungo berri*
Denporia: *noizko berri*

*Mendaroko berri banakixan nik.*
*Nik banakixan basarriko berri, eta ze eitten zan, dana.*
*Orduko berri ondo emango dizu Patxik.*

*-REN BERRI:* pertsonak edo gauzak dittugunian erabiltzen da.

Pertsonak: *Zeiñen berri*
Gauzak: *Zeren berri*

*Zure berri Mirenek eman zidan estraiñekoz.*
*Nik al dakit, ba, politika kontuen berri?*
*"Bai, bai", esan nion, "badakitt nik horren berri".*

***Jesus Mari Makazaga***



## ESKERTZA

2007ko urriaren 30ean, hil zen
***Antonio Armendia Izaguirre***ren sendiak
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## AEK, 1982-2007

# 25 URTE ELGOIBAR EUSKALDUNTZEN

***AEK-k euskaraz hitz egiten, irakurtzen eta idazten irakasten die helduei eta, bide batez, euskal kulturan sakontzeko aukera eskaintzen die. Elgoibarren orain 25 urte hasi zen erakunde hori Elgoibar euskalduntzen. Beste garai bat zen eta, batez ere hasieran, gauzak ahal ziren moduan egiten ziren. Baliabideak hobetuz joan ahala, sasoi berrietara egokitu da AEK. Erreportaje honez gain, Izaskun Belategi irakasleari egindako elkarrizketa jarriko dugu irakurgai www.elgoiBARREN.net-en aurki.***

Etzi egingo ditu Elgoibarko AEK-k 25 urte, 1982ko azaroaren 11an sortu zen-eta. Aurretik Elgoibarko Izarrak jardun zuen gau-eskoletan jendeari euskara irakasten, baina 1982ko urrian erabaki zuen zeregin hori AEKren esku uztea. Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea (AEK) urte batzuk lehenago sortua zen eta udurako bazihardeuen euskara irakasten Euskal Herriko hainbat tokitan.

Euskalduntze prozesuari begira, sekulako aldaketa ekarri zuen AEK-k. Izan ere, 1982/83 ikasturtetik aurrera klaseak egunero eta egun osoz emateari ekin zion. Udalak lagatako lokal batean hasi ziren euskarazko klaseak ematen: Correosko etxean, gaur egungo Kultur Etxean. Plaza Txikian, Pedro Muguruzako eskoletan eta Madalako etxe batean (gero Gaztetxea izan zena) ere aritu izan ziren. 1987tik Plaza Txikiko lokalean dihardute.

Euskalduntzea AEKren esku lagatzea erabaki garrantzitsua izan zen, batez ere hainbat zailtasuni aurre egin behar izango ziotelako. "Zenbait lekutan AEK sortuta zegoen eta ez zegoen materialik ez ezer. Hasierako urteetan ez zen gauza handirik kobratzen... Alde horretatik aldaketa dexentea izan zen. Nik uste dut onerako", azaldu du Amaia Larrañaga AEK-ko irakasleak.

Lan handia zegoen egiteko. Motorra Juan Mari Mendizabal izan zen. Bilbo aldetik ekarri zuen koordinatzearen ideia. Antolatuta egotea beharrezkoa zen, beste era batean jardutea. Azken batean, eskaera bazegoen eta euskaltegiak egun osoz jardun beharko zuen, material berriak sortu beharko zituzten...

Lan baldintza eskasetan aldaketa guztiei aurre egin beharrean izan ziren irakasleok. "Segituan hasi zen AEK, eta HABE bera ere, material premia hori astetzen. Horrek irakasleoi asko erraztu zigun lana eta gaur egun zer esanik ez", dio Amaiak. Hasiera-hasieratik irakasleen formakuntzari ere garrantzi berezia eman izan dio AEK-k.

Lehenengo urteak ez ziren errezak izan AEK-rentzat. "Politikoki bidegabekeriak egin izan dira", uste du Amaiak. Udalarekin zein HABErekin tirabirak izan ziren lehen urteetan eta une gogorrak izan ziren irakasle eta ikasleentzat. "Bazterkeria galantak jasan behar izan genituen". Hala ere, "pasatu da". Gaur egun Udalarekin harremana etengabea da eta elkarlanean dihardute. Horrez gain, Udalak euskara ikasleei ematen dizkien laguntza ekonomikak ere txalogarriak direla uste dute AEK-ko arduradunek. Erakundeekin ez ezik, euskararen alde diharduten eragile



*AEK-ko ikasle eta irakasleak Ekaingo kobazulora egindako irteeran, Jesus Altuna antropologoarekin.*

## Korrika, ekitaldirik bereziena

AEK-k bi urtetik behin antolatzen du Korrika. “Oso ekimen zoragarria da, partehartzea ikaragarria da”, Amaia Larrañagaren iritziz. “Herriaren onarpen ikaragarria dauka”. Dirua lortzeko helburua du Korrikak, baina horrekin batera euskararen aldeko kontzientzian eragitea ere nahi du. Ekitaldi polita izan arren, AEK-ko kideei burukomin asko ematen dizkie, ekitaldi guztiez gain, ikasturteko martxa normalarekin segitu behar dute-eta. Ikasleen laguntza bihotzez eskertzen dute AEK-ko arduradunek.



*Bi urtetik behin antolatzen den Korrikak jende ugari erakartzen du.*



*Urtero sagardotegira joan ohi dira. Eskuinean Korrika 8ko argazkia, Felix Etxeberria, Jose Gurrutxaga eta Javier Zengotitari omenaldia egin zioten.*

guztiekin ere elkarlanean jardutea ezinbestekoa da, Amaiaren iritziz.

### Aldaketa handiak

Garai batean askoz jende gehiagok ematen zuen izena Euskaltegian, baina bajak orain baino gehiago izaten ziren. Gaur egun, sakrifizioa argiago dute ikasleek eta emaitza hobeak lortzen dira. “Benetan gogorra da jendeak egiten duen sakrifizioa. Jendea ez da konturatzen. Eta gaur egun bi orduz euskaltegira etortzea lau edo bost egunetan, gizarte honetan, ez da bat ere erraza... Nik uste dut gizartearen aldetik ez dela baloratzen”.

Hogeita bost urteotan lan baldintzak ere aldatu egin dira, hoberako. Hala ere, AEK-k Euskal Herri osoan ditu euskaltegiak, eta Baionako, Tuterako edo Elgoibarko irakasleek soldata bera dute, administrazioek oso laguntza ezberdinak eman arren. Horrexegatik dirua lortzeko beste bide batzuetara jo behar izaten dute: errifak, taloak...

Gaur egun hiru irakasle ditu Elgoibarko AEK-k. Amaia Larrañaga eta Izaskun Belategi hasieratik daude. Alfontso Eugi, berriz, apur bat geroago sartu zen. Hirurak pozik daude urteurrenarekin, baina euskaltegiaren benetako protagonistak ikasleak direla nabarmendu dute.

Urteurrena ospatzeko euskararen jatorriari buruzko hitzaldia emango du Josu Naberanek azaroaren 29an. Otsailean sagardotegira irteera izango da, “25 urte hauetan gurekin izan diren guztiei irekia”. Udaberrian, berriz, euskal abesti ikastaroa eskainiko du Mikel Markez kantariak. Gainera “Euskara sentziloaren manifestua” izeneko antzerkia ere iragarri dute.



*Amaia Larrañaga, Izaskun Belategi eta Alfonso Eugi, AEK-ko beteranoak.*

## Behar berriak

Behar sozialak edo kontzientziak eraginda jotzen zuten askok euskaltegira lehen. Gaur egun, berriz, motibazioa bestelakoa da, askok lanari begirako tituluen bila jotzen dute euskara ikastera.

Azken urteotan behar konkretuagoei erantzun behar die euskaltegiak, enpresa edo talde zehatzek eskatutako ikastaroak eskaintzen ditu. Esate baterako, enpresa batek erreminta baten inguruko eskuliburua erabiltzen jakiteko hogei orduko ikastaroa eskatzen dio euskaltegiari; edo, bestela, irakasle talde batek euskaltzaindiaren arauak eguneratzeko ikastaroa behar duela. Oso lan zehatzak eta jakinak dira. Baina horrek sekulako prestakuntza eskatzen du irakasleentzako.

"Erabat aldatu da gizartea, euskaltegietan, enpresetan eta mundu guztian. Edozein arlotan", uste du Amaiak. Behar berriei aurre egitea garrantzitsua da, baina hizkuntza hitzegiteko eta erabiltzeko dela jakin behar dute ikasleek. "Guk, irakasleok, beti izan dugu argi, hizkuntza bat ikastea ez dela hizkuntza horren ezagutzara mugatzen, baizik eta hizkuntza horretan bizi den munduan murgilarazi behar ditugula ikasleak".







## Asier Gurrutxaga

**AEK-ko ikasle ohia**

**Bost urtez egon zara AEKn. Lehendik zer euskara maila zeneukan?**

Izatez euskaldun zahartzat daukat nere burua. Nahiko auzo erdeldunean bizi izan naiz eta, nahiz eta lagun euskaldun batzuk izan, erdaraz egiten genuen dena. Etxean ere, arreba nagusiagoak nituenez, erderaz egin izan dute, eurekin ere erderaz. Nire asmoa hobetzea izan zen. Lagun euskaldunak banituen eta hobetu egin nahi nuen.

**Noiz joan zinen euskaltegira?**

Orain dela hamar urte hasi nintzen. Lehenengo urtea Alfabetatze mailan izan zen, Alfonsorekin. Eta gero lau urte EGA prestatzeari begira jarri nintzen. Baina lehenengo bi urte egin nituen segidan, baina ez zen izan posible, nere burua ez neukan hor. Gero beste saiakera bat egin nuen, bi-hiru urtera. Eta iaz perfil baten beharrarekin, bigarren perfila lortu nuen eta EGA, ditxosozko EGA!

**Bide zaila da?**

Nik gogoz hartu nuen. Perfila atera nahi duen jendea larri ikusten dut. Baina nire asmoa izan zen euskara ikastea edo hobetzea. Bukarerako behar horrek ere lagundu dit eta intentsoa izan zen, eta interesgarria. Ez da sakrifizio handia izan. Bi ordu lau egunetan, baina ni zerotik ez naiz hasi.

**Ate asko ireki dizkizu euskarak?**

Bai. Lehenengo eta behin jende asko ezagutu dut. Eta gero euskara berak ate pilloa zabaltzen dizkizu: Euskal Herrian bertan egiten den kultura, antzerkia... Aberatsa da niretzat. "Berria" egunkarian kultur agenda hori agertzen da, beste hedabideek ekartzen ez dutena...

**Euskara ikasteaz gain, besterik ere egingo zenuten...**

Denetatik egin dugu. Korrikako kilometro bakoitzaren kartelak jarri, kamisetak saldu, errifak... Ezagutzen nituen AEKren beharrak eta Euskal Herri osorako egiten du lan.

Udaleko inbertsioen zati baten erabilera herritarrek erabakitzeko proposamena egin du Ezker Batua-Aralar koalizioak.

# Zer inbertsio egingo zenuke Elgoibarren?

**IÑAKI RIVERO**
Podologoa
50 urte



“Herriaren estetikan inbertituko nuke dirua, herria txukuntzeko. Parkeak eta berdeguneak jarriko nituzke, asfalto gehiegi dago. Aparkalekuak ere behar dira.”

**Mª JESUS AROSTEGI**
Etxekoandrea
59 urte



“Ez dakit! Azken urteotan gauza asko egin dira, dirua ondo erabili dela uste dut. Bide gorrien ideia oso ona da eta etorkizunerako frontoi bat ere ondo egongo litzateke.”

**BEGOÑA DE LA FUENTE**
Administraria
47 urte



“Aparkalekuak, dudarik gabe, sekulako arazoa dago, bai auzoetan eta baita erdigunean ere. San Lazaro egoitza ere txiki gelditu da eta berria egin beharra dago.”

**ANTONIO JIMENEZ**
Tornularia
55 urte



“Arazorik handiena aparkalekuena dela uste dut, gero eta auto gehiago dago. Gazteentzako etxebizitza eskuragarri eta merkeak ere beharrezkoak dira.”

# [ BAI ala EZ? ]

## Izan zara noizbait Bilboko Guggenheim museoan?

**BAI %68**

“Bai, ireki zuten urtean joan ginen, Institututik, eta garai hartan igogailuan gora eta behera ibili ginen. Bilboren ikur bihurtu dela ematen du.”

**EZ %32**

“Ez. Nola sortu zuten ikusita, hasieran ez joateko erabakia hartu nuen. Orain, ordea, aukera bat eman nahi diot eta joan ere egingo nintzateke.”

Datorren asterako... 105 herritarrek hartuko dute parte Behobia-Donostia lasterketan.

**Izango zinateke 21 kilometro korrika egiteko gauza?**

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) **ERANTZUNA**

**7505** zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.

Talasoterapia Zelai ZUMAIA

Hilabete honetan
2 pertsonentzako zirkuito
bat zozketatuko dugu
**Zumaiako Zelai Talasoterapian.**
Zenbat eta erantzun gehiago,
aukera gehiago!

www.talasozelai.com

[ PROTAGONISTA ]



## Agustin**Berasaluze**

Agustin Berasaluze mendaroarra klasiko bat zen Behobia-Donostia herri lasterketan. Aurten 25. aldiz egin behar zuen korrika. Aspaldi eman zuen izena, baina tamalez, Pirinioetan izandako istripu baten ondorioz, uztailaren 23an hil egin zen. Egun handia izaten zen berarentzat Behobia-Donostia lasterketa eguna. Duela bi urte egin genion elkarrizketa batean kontatu zigunez, familia guztiarekin joaten zen Donostiara, festa eguna zen. Aurten, beraz, huts egingo du urteroko zitan, baina dagoen lekutik begira egongo da, partehartzaileei animoak ematen. Goian bego.

[ NOTIZIA ]

# Zaborraren gaineko zerga %18,15 garestituko da 2008an

Elgoibarko Udalak 2008rako ordenantza fiskalak %3,4 igotzea onartu zuen azken osoko bilkuran. Igoerarik handiena zaborren gaineko zergak izango du: %18,15. Era horretan, 2008. urtean 107 euro ordaindu beharko ditu familia elgoibartar bakoitzak sortzen ditugun hondakinen gestioa eta tratamendua egiteagatik, hau da, hilabetan 1,6 euro gehiago. Igoera Debabarreneko Mankomunitateak ezarri du eta Udalak herritarrei zerga bidez kobratuko die. Iaz ere nabarmen igo zuen mankomunitateak hondakinak gestionatzeagatik kobratzen duen diru kopurua, baina Elgoibarko Udalak bere gain hartu zuen igoeraren zati handi bat. Aurrerantzean, ordea, igoera erreala aplikatuko dute.



**Oposizioa kontra**

PSE-EE alderdiak eta EB Berdeak/Aralar koalizioak zaborren gaineko zerga igotzearen aurkako botoa eman zuten. PP alderdiak, bestalde, abstentzioaren alde egin zuen, herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak ez igotzeko lan egin behar dela azpimarratuz.

[ ZENBAKIA ]

**196**

Foru Aldundiak onartu du dagoeneko Urruzunoko etxeen proiektua. 196 etxebizitza eraikiko dira, horietatik 124 etxebizitza libreak izango dira eta 72 alokairuko Babes Ofizialekoak. Etxebizitzak bost eraikinetan banatuko dira. Babes Ofizialekoak Kutxak sustatuko ditu eta 282 eta 405 euroko errenta jarriko zaie jabeei.

asteko [ ARGAZKIA ]



Karakate Mikologia Elkarteak umeengana gerturatu ditu aurtengoan ere perretxikoak, baina beste modu batean. Urteroko perretxiko lehiaketa egin beharrean, erakusketa didaktikoa antolatu du. Azaroaren 4an jarri zituzten perretxikoak ikusgai Kultur Etxeko sotoan eta, guztira, 300 lagun inguru hurbildu dira. Bestalde, herriko ikastetxeetako umeei bisita gidatuak eskaini dizkiete Karakateko perretxiko adituek. 172 perretxiko espezie batu dituzte Karakate Mikologi Elkarteko kideek erakusketa hori antolatu ahal izateko.

# Aurrekontu partehartzaileak proposatu ditu Ezker Batua-Aralar koalizioak




Ezker Batua-Aralar koalizioak aurrekontu partehartzaileak bultzatzeko proposamena aurkeztu du Udaleko Gobernu Batzordean. Eusko Jaurlaritzako Herri Partaidetza Sailaren laguntzaz egin dute proposamen horren lehenengo zirriborroa, eta otsailera arteko epea eman diete gainontzeko alderdi politikoei ekarpenak egiteko. Plangintza horren arabera, inbertsioen ataleko portzentaje baten erabilera herritarrek erabakiko lukete. Hau da, foro partehartzaileen bidez, herritarrek izango lukete Elgoibarren zer berritu, aldatu edo eraiki behar den erabakitzeko aukera. Unai Zulaika Ezker Batuko zinegotziaren esanetan, "horrelako planak herria hobetzeko balio dute".

**Ordenantzetan lau eskaera onartu**

Bestalde, EB-Aralarrek ordenantzetan eginiko sei eskaeretatik lau onartu dizkiete: "Azken urteetan zerbait onartzen diguten lehenengo aldia da eta zentzu horretan pozik gaude", azaldu du Unai Zulaikak. Familia anitzei eta Biziguneko etxeen jabeei kontribuzioan deskontua egitea, energia berritzaileak erabiltzen dituztenei dirulaguntzak ematea eta bi milioi eurotik gorako irabaziak dituzten enpresei, zerga IPC-KPI baino gehiago igotzea onartu dituzte. Beste bi eskaerak etxebizitzen fatxada eta teilatuak konpontzeko laguntzak emateko eskaerak ziren eta Udaleko arduradunek esan diete, Aldundiak bideratuko ditu eta martxan jarriko dira.

## Amaitu dituzte Parrokiako erretaula berritzeko lanak



Martxoan hasi ziren San Bartolome Parrokiako erretaula nagusia berritzeko lanak eta aste honetan amaitu dituzte. Irungo Arietta errestauratze etxea izan da lan honen arduraduna, Marina Del Rey errestauratzailearen gidaritzapean. Erretaula garbitu eta bere oinarrizko koloreak berreskuratu dituzte, batez ere. Gaur bertan aldamioak kendu eta hitzaldia eskainiko du Marinak erretaulan egin duten lana azaltzeko. 20:00etan izango da San Bartolome Parrokian.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### "Egun Bat" elkarteak urtebete egin du

Ludopatiaren gaitzak jotako gaixoei eta euren senideei laguntzeko sortu zen "Egun Bat" taldea eta dagoeneko, urtebete egin du. Egun bat jokatu gabe pasatzea da elkarte honen helburua; egun bat bestearen atzetik, alegia. Bertatik eskerrak eman nahi dizkiete denbora honetan lagundu dieten guztiei: komunikabideei, Udalari eta Gizarte Zerbitzuetako langileei. Bestalde, gogorarazi nahi dute ludopatiari buruzko edozein argibide jasotzeko 657710756 telefonora dei daitekeela.

### Presoen aldeko zozketa

Presoen alde eginiko zozketako zenbaki irabazleak atera dira: Furgoneta: 25.783 (30.695), Argentinarako bidaia: 100.587 (3.571) eta ordenagailu portatila: 78.615 (38.007).

### Bidezko Merkataritza

Parrokiako Misio Taldearen eskutik, atzo ireki zituen ateak Bidezko Merkataritzak. Merkatu Plazan jarri dute aurten ere. Gaur eta bihar egongo da irekita eta ondoren, azaroaren 29 eta 30ean. Abendutik maiatzera bitartean egongo da denda horretan erosteko aukera. Erosleari oinarrizko produktuak bere benetako prezioan eskaintzea da helburua, ekonomia solidarioa sustatzeko.

### Gipuzkoako gaixo eta ezinduen bilkura

San Bartolome parrokiako Osasun Pastoralak antolatuta, Gipuzkoako gaixo eta ezinduak bilduko dira domeka honetan gure herrian. Azpeitia, Azkoitia, Zumaia, Zestoa, Orio eta Getariako gaixoak eta euren zaintzaileak etorriko dira, guztira ehun lagun inguru. Eurei eskainitako meza izango dute lehendabizi, eta ondoren, bazkaria egingo dute Sigma jatetxean.

## IRAKASLEARI azterketa

### EGOITZ IRURE

Batxilergo eta DBHko irakaslea




1 **Zergatik irakasle?**
Ez zen nire asmoa hasieran. Matematika ikasi nuen eta irakaskuntzan bukatu dut. Bost urte daramatzat dagoeneko!

2 **Zientzia irakaslea zara. Ikasle garaian, zientziak ala letrak?**
Zientziak, dudarik gabe. Letretan ere ondo moldatzen nintzen, ikasle fina izan naiz, baina zenbaki artean gusturago.

3 **2+2 beti 4 al da?**
Bai, dudarik gabe

4 **Zergatik gorrotu ditu jendeak matematikak?**
Ez dut ulertzen, niri izugarri gustatzen zaizkit. Ulertzeko zaila egiten zaielako izango da, baina jende asko dago gustuko dituena..

5 **Zein da matematika eta fisika gainditzeko trukoa?**
Klasean adi egon eta lan egitea.

6 **Irakasle gogorra al zara?**
